

## NAFARROAKO HIRI HONDAKINEN TRATAMENDURAKO PARTZUERGOA

### Ordenantza fiskala, hiri hondakinak lekuz aldatu, sailkatu, tratatu, balioztatu eta, behar izanez gero, ezabatzeko zerbitzuaren tasa arautzen duena. Behin-betiko onespena

2019ko 222. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 11n, Hiri hondakinak lekuz aldatu, sailkatu, tratatu, balioztatu eta, behar izanez gero, ezabatzeko zerbitzuaren tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren 9. artikuluko 3. zenbakia eta haren eranskina aldatzeko hasierako onespena. Jendaurreko epea iragan denez alegazio, kexa edo oharrik gabe, behin betiko onetsita gelditu da aldaketa hori eta jarraian argitaratzen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluko 1 zenbakian ezarritakoari jarraituz. Haren testu osoa ondotik ematen da.

9. artikulua. (...)

–Tarifa:

3.–Tasaren tributu-kuotak zehazten dituzten zerga-oinarriei aplikatzekoak zaizkien tasak eta tarifak izango dira Partzuergoko organo eskudunak aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezartzen dituenak, kontuan hartuz aurreztu dena, bai sorkuntza ratio txikiagoen ondoriozko kostuetan bai materia organikoaren gaikako bilketaren sistemak ezartzean eta, baita ere, kasua bada, ordenantza honetako 6. artikuluko 1. zenbakian aipatutako udalerraren eremuan egindako hobekuntzekin; hori guztia, ordenantzaren eranskinean ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2019ko abenduaren 30ean.–Partzuergoko burua, Bernardo Ciriza Peréz.

### ERANSKINA

1. Behin-betiko onespena argitaratu eta hurrengo egunean, tarifen zenbatekoak zehaztuko dira, ondoko taulan ezarritako kopuru eta irizpideen arabera, zein den jarduera eta zerbitzuaren prestazioa gertatzen den establezimendua. Etxeko tarifari dagokionez (T) 65,68 eurokoa izango da.

TALDEA/TARIFAK	JARDUERAK TOKI ZEHATZETAN	PISUA, TARIFEN ARABERA
<b>1. TALDEA: Etxekoa</b>		
1. TARIFA	Etxeak	T
<b>2. TALDEA: Etxeko tarifaren parekoak</b>		
2. TARIFA	Bulegoak, langelak, jarduera profesionalak egiten diren lokalak, eta, oro har, zerbitzuen sektorearekin lotutakoak. Bulego eta instalazio publikoak barnean hartzen ditu, baldin ez badute jantoki zerbitzurik. Merkataritzako establezimenduak, elikagaienak salbu, haien azalera osoa 150 m <sup>2</sup> -tik beherakoa bada. Elkarte gastronomiko guztiak sartzen dira.	1,25 x T
3. TARIFA	Merkataritzako establezimenduak, elikagaienak salbu, haien azalera osoa 150 m <sup>2</sup> -tik gorakoa bada. Ostalaritza eta aisialdiko establezimenduak, jantoki zerbitzurik gabe, haien azalera osoa 150 m <sup>2</sup> -tik beherakoa bada. Elikagaien establezimenduak, haien azalera osoa 150 m <sup>2</sup> -tik beherakoa bada. Barnean sartzen dira azalera hori duten okindegiak eta/edo gozotegiak.	2 x T
4. TARIFA	Ostalaritza eta aisialdiko establezimenduak, jantoki zerbitzurik gabe, haien azalera osoa 150 m <sup>2</sup> -koa edo hortik gorakoa bada. Ostalaritza eta aisialdiko establezimenduak, jantoki zerbitzua dutenak, haien azalera 150 m <sup>2</sup> -tik beherakoa bada.	3 x T

TALDEA/TARIFAK	JARDUERAK TOKI ZEHATZETAN	PISUA, TARIFEN ARABERA
5. TARIFA	Industriako establezimenduak, handizkako banaketarako establezimenduak eta lantegiak, betiere ez badaukate jantoki zerbitzurik eta ez badute elikagairik maneiatzen, biltegitratzen edo eraldatzen.	3 x T
<b>3. TALDEA: Bereziak</b>		
6. TARIFA	Elikagaien merkataritzako establezimenduak, haien azalera osoa 150 m <sup>2</sup> -tik gorakoa eta 500 m <sup>2</sup> -koa edo txikiagoa bada. Ostalaritzako establezimenduak sartzen dira, publikoak edo pribatuak izan, jantoki zerbitzua izan eta azalera hori dutenak.	5 x T
7. TARIFA	Industriako establezimenduak, jantoki zerbitzua badute edo haien jardunean elikagaiak maneiatzen edo eraldatzen badituzte.	6 x T
8. TARIFA	Elikagaien merkataritzako establezimenduak, haien azalera osoa 500 m <sup>2</sup> -tik 1.000 m <sup>2</sup> -ra artekoa bada. Ostalaritzako establezimenduak, publikoak edo pribatuak, jantoki zerbitzua izan eta azalera hori dutenak, baldin eta haien plaza kopurua 100dik beherakoa bada. Hemen sartzen dira kanpin guztiak, haien plaza kopurua edozein delarik ere.	7 x T
<b>4. TALDEA: Hondakin sortzaile handiak</b>		
9. TARIFA	Elikagaien merkataritzako establezimenduak, haien azalera osoa 1000 m <sup>2</sup> -koa edo hortik gorakoa bada. Ostalaritzako establezimenduak, publikoak edo pribatuak, jantoki zerbitzua izan eta azalera hori dutenak, baldin eta haien plaza kopurua 100 edo hortik gorakoa bada.	20 x T

2. Tributu-kuota zehazteko, honako formula hau aplikatuko da:

A) Bukaerako tarifa = Oinarrizko tarifa x (1- F1 (hondakinen sorkuntza)-F2 (organikoaren ezarpena)), etxeetako subjektu pasiboendako.

B) Bukaerako tarifa = Oinarrizko tarifa x (1- F2 (organikoaren ezarpena)), etxeok ez diren subjektu pasiboendako.

Honako hau izanik:

F1 (hondakinen sorkuntza): Errefusaren sailean tona gutxiago sortzea, subjektu pasibo baliokide batek sortzen duen batez bestekoa baino (bildutako euroak guztira/etxeok tasa), kontuan hartuz udalerrria zein mankomunitatetan, eskualdetan edo tokiko elkartetan dagoen. Batez besteko horretatik behera dagoen ehuneko puntu bakoitzeko, zerga-oinarriaren ehuneko puntu bat kenduko da. Gehienez ere %5 murriztuko da kontzeptu horrengatik.

F2 (organikoaren ezarpena):

–Etxeko eta komunitateko konpostaje sistemak ezartzeagatik: %20ko murrizketa, etxean konpostajea egiteko programako partaide bakoitzari eta beste %20koa, komunitateko konpostaje programako partaide bakoitzari.

–Materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeagatik, honela murriztuko dira tasak:

F2 = %15, baldin eta ezegokiak <%5.

F2 = %10, baldin eta %5 < ezegokiak <%20.

F2 = %5, baldin eta %20 < ezegokiak <%25.

F2 = %0, baldin eta ezegokiak >%25.

Murriztapen horiek subjektu pasibo hauei aplikatuko zaizkie:

a) Bilketa, bereizi gabeko edukiontzia erabiliz: sistema horretan izena eman duten guztiei. Sistema horri atxikitze erregistrorik ez badago, murriztapena aplikatuko da ezarpen eremu osoan (edukiontzia duten udalerrak).

b) Bilketa, bereizitako edukiontzia erabiliz: sistema horretan izena eman duten guztiei.

c) Bilketa, banakako edukiontzia erabiliz: ezarpen eremuko subjektu pasibo guztiei (atez ateko bilketa sistema duten udalerrak).

L1916824